

Pako Sodupe

IDAZLEA

## Oraingoan bai: aro berria!

**B**erandu baina heldu da. Espainiako Gobernuak –Frantziakoa lagun leiala duela– temati eta anker jarraitzen du ETAre erabateko armagabetze ezari etekina ateratzen, Gobernuaren esku-makila den fiskal, epaile mendekatiaren eta polizien lankidetzaren osoz –politikoki mugitzen diren gazteak torturazten eta izuarazten–, eta jarraituko du ere ETA desagertu arte, eta hori gertatu ondoan. EAJko zuzendaritza nagusia hori ikusten dugu PSOErekin bat-bat eginda. Eszeptizismoa ezin bada, berehalakoan kendu gaitetik!

Hegoaldeari gagozkiola, euskal alderdiak bitara bildu gabe, PP/UPN eta PSOE-PSE-PSNren agintepean jarraituko dugu hamarkadarik hamarkada. Nazio bezala pentsatuz, EAJren inguruak behar du bloke batean, eta gainerako alderdi abertzale eta autodeterminazioaren aldekoak bestean, eta bien artean, akordio funtsezkoenetara helduaz, ezer aurreratzekotan, kaltegarri zaizkigun keria guztiak alde batera utzirik.

Zertarako aldaketa politikoa? Gizarte eta politika gai nagusiei buruz, bestelako diskurtsoa eta bestelako praxia abian jartzeko.

Gehien eragiten didanari helduz, gurean oso zabaldurik dauden ideia oker batzuk: hizkuntzak komunikatzeko dira; euskara erdara baino



DANI BLANCO

zailagoa da eta horregatik erabiltzen da gutxiago; euskara ez da politizatu behar, ez dago arriskuan EAEn behintzat, eta euskaldunok biktimismo historiko merkean jausten gara.

Espainolik gabe Espainiarik ez, frantsek gabe Frantziarik ez; komunikatzeko balioaz gain, konstituzio politikoen munitate gure auzo hizkuntzak; egun euskaldun gehienentzat erdaraz idaztea errazagoa da: zergatik? Orain arte gutxi erabili dugulako; eta gutxi erabili da Espainiako eta Frantziako klase gidariek plaza publikotik kendu dutelako, bere balio sozial kultural politikoa xurgatu diotelako inposizio osoz.

Bestelako dinamika bati ondo ekitzeko dago arbaso euskaldunak ditugunok iraganaren deiarri kasu egitea: gure aurrekoak euskaldunak ziren, katea ezin dugu eten; baina, batez ere etorkizunera begira jokatzeko dugun partidak dugu axolazkoena: zenbat eta alor gehiagotan landu eta erabili euskara, orduan eta burujabeago, eta burujabetzaren zaleago, orduan eta subjektu politikoa eta sendoago askatasunerako.

Espainiar eta frantziar zaletasuna euskaraz ere in izan da, eta gaur ere eriten ari da, baina diskurtso eta praxi euskaldunak beti eman dio eta emango ere indar berebizikoa askatasun politikoa alderdi dinamikari. Ez da hala? ■

«  
Zenbat eta alor gehiagotan  
landu eta erabili euskara,  
orduan eta burujabeago, eta  
burujabetzaren zaleago, orduan  
eta subjektu politikoa eta  
sendoago askatasunerako  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ezagunekin topo egin nuen joan zeneko igandean. Telebitaririk gabeko futbola ikustea maite dut. Zelai berean, asteburuan, sei zazpi partida jokatzeko diren herriko taldeak jarraitzean, garai bateko ezagunak ikusteko parada izaten dut. Ez dira gutxi, holakoetan ikusitako jokalaririk ohiak. Eta iragan igandean, orain hogeita hamar bat urte ikusi gabeko hiru topatu nituen zelaiko kantuan. Lehen kolpean ezagutu nituen zelaiko zuzendurik nintzen, zerbitzariak “hor daukazu zurea” esaten zidan bitartean. “No sabía que supieses el vasco” bota zidan gazteenak, jokalaririk gisa ezagutu izan nuen, garai hartan

### Aspaldiko

maisutza ikasten zuena. “Zuekin ez zen posible, guztiak erdalduak zirenen”. “Tartean euskaldunak baziren, halakoa eta hola-koa” argitu zidan. Nondik hasiko nintzaion esplikatzeko bera nuela akorduan, euskara entzun orduko aurpegia zimurtzen zitzaizkion, ikasketetan bere ezgauza euskarari eragozteko inongo lotsarik ez zuena. Irakaskuntzan jarraitzen du. Agian, euskara ikas zezan bereziki urteak eman dituenetako da, azterketak oso gogorak eta gaitzietatik direla esaten duenetako, ni bezalako baten aurrean “claro tú tuviste la suerte de aprenderlo en casa” esateko gauza badena. Badakit non ari den maisutzan, gurek zapalduko ez duten ikastetxean. ■